

Oier Araolaza

DANTZARIA ♦



DANI BLANCO

## Ez berbazkoak

EUSKARAREN biziberritzeaz eta euskal kulturagintzaz gogoeta mamitsuak egin ditu Sorguneak ikerguneak azken urteotan. Kultur bizitzaren azterketatik abiatu eta euskal kulturagintzaren estrategiak garatzeko oinarriak proposatu ditu. Azterketa eta estrategia, eguneroan kateatuta bizi garenok premiazkoak ditugun bi tresna.

Kulturagintzan hiru kategoria bereizi ditu Sorguneak ikertegiak: euskaraz egiten dena, erdaraz egiten dena, eta hitzik ez darabilena. Euskararen eta euskal kulturaren etorkizuna berbazko euskarazko kulturaren eremuan jokatzeko delatzen dute. Horrek beharko lukeela lehentasuneko lan-eremua. Bigarren mailan leudeke dantza, ikusizko arteak eta, oro har, ez berbazkoak diren kultur jarduerak.

Kategorizazio hori proposamen bat da, euskal kulturagintzaren soroa goldatu eta ereiten jarraitzeko lur eremua antolatzeko ahalegin bat.

Eztabaidarako gonbidapena da eta poztu nau horrek. Ez dakit erronkari erantzuteko gai izango garen, baina kategorizazioa eta horren ondorioz etorriko diren lehentasunen antolaketa hierarkikoa mahai gainean jarri dira, denon bistara.

Dantzaren txokotik begiratuta, esango nuke, azken hogeita bost urteotan izan dela indarrean kulturagin-

tzaren sailkapen bat. Kategoriak lausoagoak izango ziren akaso, hierarkizazioa ez zen esplizituki aurkezten, baina praktikan, nabarmena gertatu zaigu ez berbazko kulturagintza ez dela izan lehentasuneko alorra. Dantza bigarren mailako kultur jardueratzat tratatua izan da, oso ongi antzeman dugu hori.

Sorguneak taldearen kategorizazio proposamenak

dantza bigarren maila horretan finkatzea ekar lezake. Dantzazaleontzat irensteko zaila izan daiteke, baina behintzat formulatu egin da eta badaukagu eztabaidatzeko aukera. Okerragoa izan da orain arte bizi izan duguna, agerian planteatu ez, baina praktikan ez izate aintzat hartua.

Euskaratik begiratuta ulertezina zaigu Irlandan gaelikoarekin gertatu dena. Badakite nahi dutenean temati izaten, baina hizkuntzarekin axolagabe jokatu dutela iruditzen zaigu. Badirudi gureaz oso bestelako kategoria antolaketa eta hierarkizazioa egin dutela. Musika eta dantza irlandar kulturagintzaren zutabe eta sinbolo sendoak dira.

Hizkuntza galtzen zuten aldi berean mundu osora zabaldu dute beraien ez berbazko eta erdarazko kulturagintza. Gurean hizkuntza nahi eta ezinean, eta musika eta dantza alboratuta. Erakutsi diezaiegun irlandarrei biak batera egin zitezkeela. ■

*Sorguneak taldearen kategorizazio proposamenak dantza bigarren maila horretan finkatzea ekar lezake. Dantzazaleontzat irensteko zaila izan daiteke, baina behintzat formulatu egin da eta badaukagu eztabaidatzeko aukera*



DANI BLANCO



Amets Arzallus



BERTSOLARIA

## La Grande Boucle

ORAIN Bidegoian deitzen zaion Gipuzkoako herri hori gurean beti bi herri izan dira, bata Bidania eta bestea Goiatz. Herri txikiak dira orain, baina mapa zaharretan agertzen omen ziren, pentsa, Joxe Agirrek esaten zigun Bidanian jaio zela izotza. Hori baino dokumentatuago dago garai batean Bidanian egiten zirela Gipuzkoako Batzar Orokorrak, Usarraga base-riko zelaietan, hura izan nonbait Gipuzkoako epizentroa. Baina goiaztarrak ere ez ziren zilborrik gabe jaio, eta Goiatz omen da Gipuzkoako herririk altuena, hala dio gure aitak. Elgetarren batek kon-

tra egin izan dit inoiz, hura omen dela garaiena. Bakoitzak bere astoari arre. Eta nik bie barre. Aita haurra zela Goiatz Bidanietan esaten omen zen pertsona batek frantsesez eta bizikletan ibiltzen jakin ezker ez zeukala munduan inora joateko beldurrik. Aste honetan hasiko da Frantziako Tourra, ehungarrena. Eta ziklismoaren aspaldiko martxa ikusita, hainbeste sasi mediku eta sasi kazetari, apustu egingo nuke txirindulari bat baino gehiago beldurrez joango dela Korsikara. ■

